

Donostiako Metroaren aurkako aldarria egin dute Jaurlaritzaren Miramar-eko Kontseiluaren aurrean

MOVIMIENTO VECINAL SATORRALAIA :: 02/09/2021

Una marcha ha reivindicado la paralización de la pasante de Metro ante el consejo del Gobierno Vasco en Miramar.

(INFO Metroari STOP) Donostiako Metroaren aurkako aldarria egin dute Jaurlaritzaren Miramar-eko Kontseiluaren aurrean

Una marcha ha reivindicado la paralización de la pasante de Metro ante el consejo del Gobierno Vasco en Miramar

1.EUSKARA

2.CASTELLANO

Donostiako Metroaren aurkako protesta-martxa egiten dute hamarnaka lagunek gaur goizean Jaurlaritzaren Miramar-eko gobernu kontseilura, erabat behargabekoa, kaltegarria eta xahuketa ekonomiko itzela den obra hori gelditu dezala berriro aldarrikatzeko. Martxaren buruan "JAURLARITZA ENTZUN: METROA GELDITU! BEHARGABEKOA - XAHUKETA - EROKERIA" zioen pankartak. Manifestariak Kontxako pasealekutik abiatua dira, eskuetan metroaren aurkako aterki horiak hartu eta etengabe "METROA GELDITU, DONOSTIA EZ ZULATU!" bezalako oihuak eginda. Esku-orri informatiboak ere banatu dira kalean.

Gaurko protesta-martxaren bidez, Metroaren obra urtebete baino gehiago geldiaraztera behartu duten gertakari larrien eta gailentzen ondoren, ETS eta enpresa adjudikatzaile berriek Easo Plazatik Kontxara egin asmo duten tunelaren zulaketa-lanak abuztu betean berrabiatu dituztela salatu du Satorralaiak. Obra hori egitea astakeria bat da edonondik, tunela zulatzeak hirigunean eragingo dituen arriskuez proiektuan egiten diren ohartarazpen latzak kontuan hartuta. Kontxako hondartzaren lurpean ere kalte larriak eragin direla egiaztatu du bestalde Itsasertzeko Zerbitzuak. Hala ere, tunelaren zulaketa lanak berrartu dituzte Urbieta kaleko lurpeko frontean -Koldo Mitxelenaren ta Amarako eskolen artean.

Halaber, Eusko Jaurlaritza eta Donostiako Udal Gobernua gezurretan aritu direla salatu nahi dugu gure hirian Metroaren eraikuntzak dituen inpaktuen, koste errealek eta helburuen inguruan. Gure ustez, gehiegikeria hau Donostian sustatzen ari den hiri-ereduaren eta turismoan oinarritutako eredu ekonomikoaren ondorioa da. Horrek espekulazioa areagotzea eta inbertsoreen interes ekonomikoak bizilagunen eta langileen beharren gainetik jartzea dakar berekin. Ez alperrik, hiri-ereduari buruz eta garraio publikoko sistemari buruz inongo partehartze eta eztabaida sozialik gabe inposatu dute Metroa. Zer ari dira egiten Donostiarekin?

Argazki galeria Irutxuloko Hitzan:

<https://irutxulo.hitza.eus/2021/08/31/metroaren-tunelaren-zulaketa-lanak-abuztuan-berrabiatu-dituztela-salatu-du-satorralaiak/>

Una marcha ha reivindicado la paralización de la pasante de Metro ante el consejo del Gobierno Vasco en Miramar

Decenas de personas han realizado esta mañana una marcha de protesta al consejo del Gobierno Vasco en Miramar para manifestar el rechazo a la construcción de la pasante de Metro en Donostia y reivindicar nuevamente la paralización de esta obra considerada como una insensatez y un derroche económico absolutamente innecesario y perjudicial. La marcha ha recorrido el Paseo de La Concha encabezada por una pancarta con el lema “JAURLARITZA ENTZUN: METROA GELDITU! INNECESARIO - DERROCHE - INSENSATO”, al tiempo que los/as manifestantes han portando paraguas amarillos contra el Metro y han coreado consignas como “METROA GELDITU, DONOSTIA EZ ZULATU!”. También se han repartido hojas informativas.

Con la marcha realizada hoy, el movimiento vecinal Satorralaia quiere denunciar que ETS y las nuevas empresas adjudicatarias han reanudado en pleno mes de agosto la perforación del túnel proyectado entre la Plaza Easo y La Concha. La realización de esta obra es un desatino, como lo demuestran los graves sucesos y sobrecostes que han obligado a suspender la obra durante más de un año, así como las alarmantes advertencias presentes en el proyecto sobre los riesgos que conlleva su ejecución para el espacio urbano. El Servicio de Costas ha constatado a su vez las graves afecciones provocadas por la construcción de esta infraestructura en el subsuelo de la playa de La Concha. A pesar de ello, han reanudado la excavación del túnel en el frente de la calle Urbietta -situado entre el Centro Koldo Mitxelena y las escuelas de Amara.

Asimismo, Satorralaia manifiesta que el Gobierno Vasco y el Gobierno municipal de Donostia han mentido sobre los impactos, los costes reales y la finalidad de la construcción de la pasante de Metro. A nuestro entender, este despropósito es consecuencia del modelo económico y de ciudad centrado en el turismo que se está fomentando en Donostia, lo cual conlleva una creciente especulación urbana y la prevalencia del interés económico de los inversores por encima de las necesidades de los/as vecinos y trabajadores. No en vano, el Metro ha sido impuesto sin ninguna participación ciudadana ni debate social sobre el modelo de ciudad y el sistema de transporte público. ¿Qué están haciendo con Donostia?

Galeria de fotos en Irutxuloko Hitzan:

<https://irutxulo.hitza.eus/2021/08/31/metroaren-tunelaren-zulaketa-lanak-abuztuan-berrabiatu-dituztela-salatu-du-satorralaiak/>

-

<https://eh.lahaine.org/donostiako-metroaren-aurkako-aldarria-egin>